Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)

EIBAR
Udala | Ayuntamiento

EIBARKO UDALA
Ayuntamiento de Eibar

MEMORIA: IPURUA 2 ERAIKINEKO PROIEKTUA IDAZTEA ETA OBRAK ZUZENTZEA

MEMORIA: REDACCION DE PROYECTO Y DIRECCIÓN DE LAS OBRAS DEL EDIFICIO IPURUA 2

Sail sustatzailea: Obrak

Departamento promotor: Obras

Kontratuaren xedea: Eibarko Udalerako "Uretako instalazio berriak, IPURUA 2" gauzatze eta aktibitate proiektua idaztea eta obraren zuzendaritza egitea..

Objeto del Contrato: Redacción del Proyecto de ejecución y de actividad y dirección de las obras de “Nuevas instalaciones acuáticas, IPURUA 2” para el Ayuntamiento de Eibar.

Espediente-zk.: 2026078EI

Número de expediente: 2026078EI

Kontratuaren bidez bete beharreko administrazio-premiak.

Proiektu honen idazkerarekin Udalaren helburua uretako instalazioak dituen kiroldegi berri bat sortzea da. Behar adinako argi naturala eta espazioa duten hiru igerileku-ontzi sortzeko beharrezko obrak definitu nahi dira, mendi-hegala mailaz maila aprobetxatuz haren bolumena minimizatzeko eta kanpoko espazio eta ibilbideak herritarren zerbitzura jartzeko, eta, aldi berean, lehendik dagoen eraikina integratzeko.

Obrei eta horien esleipen-prozesuari ekin ahal izateko, "Uretako instalazio berriak, IPURUA 2" izeneko proiektua idaztea beharrezkoa da. Horretarako, eraikinaren proiektua idazteko lanari eta gauzatzearen zuzendaritza fakultatiboa bere gain hartzen duen talde tekniko bat kontratatu behar da.

Aurrekontua egiteko, kontuan hartu dira, besteak beste, EHAEOren ordainsarien baremoa eta Bide,

Necesidades administrativas a satisfacer mediante el contrato.

Con la redacción del proyecto el Ayuntamiento tiene como objeto la creación de un nuevo edificio polideportivo con instalaciones acuáticas. Se pretenden definir las obras necesarias para generar tres vasos de piscinas con suficiente luz natural y espacio aprovechando escalonadamente la ladera para minimizar su volumen y disponer de espacios y recorridos exteriores al servicio de la ciudadanía, integrando a su vez el edificio existente.

Para poder acometer las obras así como el proceso adjudicatario de las mismas, es necesaria la redacción de un proyecto denominado “nuevas instalaciones acuáticas, IPURUA 2” para lo cual es necesaria la contratación de un equipo técnico que realice la labor de Redacción del Proyecto del edificio y asuma la dirección facultativa de la ejecución de las mismas.

El presupuesto se ha elaborado teniendo en cuenta entre otros aspectos el Baremo de

EIBARKO UDALA | AYUNTAMIENTO DE EIBAR

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de Verificación:
65cc018a9d15cd45b2a71e796e13e41d7c4e20c5
Erreferentzia-zenbakia /Nº Referencia: DS-202600004976
Baliozkotze-URLa / URL de validación: https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do

Sinadura / Firmado por	Data / En fecha
ANDER GURRUCHAGA ODRIOZOLA	02/10/2026 11:18:17

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)

Ubide eta Portuetako Ingeniarien Elkargoaren ordainsarien baremoa.

Honorarios del COAVN y el Baremo de Honorarios del Colegio de Arquitectos Vasco-Navarro.

Baliabide nahikorik ez izateari buruzko txostena

Zerbitzu honek behar duen lan-karga ezin dute Udaleko langileek egin beren ohiko zereginei kalterik egin gabe, eta, bestalde, ez da komeni udal langile gehiago kontratatzea noizbehinkako lana delako.

Informe sobre insuficiencia de medios disponibles

El volumen del trabajo que este servicio requiere no se puede acometer por el personal municipal sin que sus funciones ordinarias se vean menoscabadas, no siendo conveniente, por otro lado, la ampliación de personal por tratarse de un trabajo puntual.

Kontratuaren aurrekontua:

Presupuesto del contrato:

NAGUSIA PRINCIPAL	BEZA (% 21) IVA (21 %)	GUZTIA TOTAL
661.150,00 €	138.841,50 €	799.991,50 €

Lizitaziorako oinarri gisa adierazitako aurrekontuan zein lizitatzaileek egiten dituzten eskaintzetan, elkargoaren kontzeptu, azterlan, irizpen eta gastu guztiak sartuta daudela ulertu behar da.

Tanto en el presupuesto indicado como base de licitación, como en las ofertas que se formulen por los licitadores, han de entenderse incluidos todos los conceptos, estudios, dictamenes y gastos colegiales.

Kontratua betetzeko epea.

Plazo de ejecución.

Lehenengo faseko epea: 4 ASTE oinarrizko proiektua eta jarduera-proiektua idazteko, kontratua formalizatu eta hurrengo egunetik hasita.

Plazo primera fase: 4 SEMANAS para la redacción del proyecto básico y proyecto de actividad, contadas a partir del día siguiente al de formalización del contrato.

Bigarren faseko epea: 16 ASTE exekuzio-proiektua idazteko, lehenengo fasea amaitzen denetik zenbatzen hasita.

Plazo segunda fase: 16 SEMANAS para la redacción del proyecto de ejecución, contadas a partir de la finalización de la primera fase.

Hirugarren faseko epea: Obra-zuzendaritzaren prestazioa obraren zuinketarekin edo obra beraren

Plazo tercera fase: La prestación de la Dirección de Obra comenzará con el replanteo de la obra o

EIBARKO UDALA | AYUNTAMIENTO DE EIBAR

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de Verificación:
65cc018a9d15cd45b2a71e796e13e41d7c4e20c5
Erreferentzia-zenbakia /Nº Referencia: DS-202600004976
Baliozkotze-URLa / URL de validación: https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do

Sinadura / Firmado por	Data / En fecha
ANDER GURRUCHAGA ODRIOZOLA	02/10/2026 11:18:17

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)

hasierarekin hasiko da, eta zuzendaritza fakultatiboko kontratazioa helburu dituen obren iraupenaren arabera zehaztuko da, obra-harreraren aktarekin eta obren amaierako dokumentazioaren entregarekin amaituko dela.

con el inicio de la misma y el plazo vendrá fijado por el de la duración de las obras cuya Dirección Facultativa se contrata, de tal modo que finalizará con el acta de recepción y con la entrega de la documentación final de las obras.

Kontratua lotetan ez zatitzearen justifikazioa

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauen transposizioa egiten duen Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 99.3 artikuluan xedatutakoaren arabera (aurrerantzean, SPKL), txosten hau sinatzen duenak arrazoi hauek jotzen ditu kontratuaren xedea lotetan ez zatitzea justifikatzeko:

- Kontratuaren xedean jasotako prestazioek ez dute berezko substantibotasunik, eta, beraz, ezin dira bereizita gauzatu.

Eraikinaren liburuaren exekuzioak kontratuaren zati izan behar du; izan ere, Eraikinaren Liburua egiteko behar den informazio guztia Obraren Zuzendaritzak eman behar du, horiek baitute informazio hori.

Justificación de la no división en lotes del contrato

En base a lo dispuesto en el artículo 99.3 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, por la que se transponen al ordenamiento jurídico español las Directivas del Parlamento Europeo y del Consejo 2014/23/UE y 2014/24/UE, de 26 de febrero de 2014 (en adelante, LCSP), el que suscribe este informe considera motivos válidos, a efectos de justificar la no división en lotes del objeto del contrato, los siguientes:

- Las prestaciones comprendidas en el objeto del contrato no tienen sustantividad propia, de manera que no es posible su ejecución de manera separada.

L
a ejecución de libro del Edificio debe de ser parte del contrato, dado que toda la información que se requiere para poder realizar el Libro del Edificio lo tiene que facilitar la Dirección de Obra, que son los que disponen de esa información.

Kontratuaren adjudikaziorako prozedura:

Proposatzen den kontratazioari SPKLn jasotzen diren esleipen-prozedurak aplikatuko zaizkio.

Kontratu honek ez du konplexutasun handirik eta ez du kontratistaren kaudimen-ezaugarri berezirik eskatzen; beraz, bidezkoa da aipatutako Legearen 156. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako Prozedura Irekia erabiltzea, non adjudikazio-

Justificación del procedimiento de adjudicación del contrato

A la contratación que se propone le son aplicables los procedimientos de adjudicación que se recogen en la LCSP.

La escasa complejidad de este contrato no exige características especiales de solvencia del contratista, por lo que procede la utilización del Procedimiento Abierto, previsto en el artículo 156 y siguientes de la referida Ley, en el que el proceso

EIBARKO UDALA | AYUNTAMIENTO DE EIBAR

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de Verificación:
65cc018a9d15cd45b2a71e796e13e41d7c4e20c5
Erreferentzia-zenbakia /Nº Referencia: DS-202600004976
Baliozkotze-URLa / URL de validación: https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do

Sinadura / Firmado por	Data / En fecha
ANDER GURRUCHAGA ODRIOZOLA	02/10/2026 11:18:17

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)

prozesua fase bakar batean garatzen den, lehenik, enpresak eta gero eskaintzak hautatuz.

de adjudicación se desarrolla en una sola fase, de selección de empresas, primero, y de ofertas, después.

Eskaintzak baloratzeko irizpideak balorazioa

A. BALIO-JUDIZIO BIDEZ NEURTU DAITEZKEEN IRIZPIDEAK.

IRIZPIDEA: MEMORIA

Puntuazioa guztira: 48 puntu.

Hautagaiek aurkeztutako alderdi funtzional eta formalak baloratuko dira, jabetzak ezarritako premisak kontuan hartuta.
Ideia hori gauzatzea ahalbidetuko duten irtenbide teknikoak eta eraikitzaileak baloratuko dira era berean Hau dena hurrengo irizpideak kontuan hartuta:

1.IRIZPIDEA: HARTUTAKO IRTENBIDEAREN DESKRIBAPENA ETA AZTERKETA, ERAIKIN BERRIAREN ERABILERARI ERAGITEN DIOTEN IRIZPIDEEN ARABERA.

Puntuazioa: 8 puntu.

Baldintza-agiri Teknikoan azaldutako beharrak (premia horiek dagoen aurreproiektura hertsiki egokitzen ez direnez) eta bertan definitutako irizpideak txertatuta, ingurunera egokitutako lehiaketa- eta ikaskuntza-igerilekuen eraikina hobetzen eta definitzen duten konponbideak baloratuko dira.

Criterios de valoración de las ofertas

A. CRITERIOS EVALUABLES MEDIANTE JUICIOS DE VALOR

CRITERIO: MEMORIA

Puntuación total: 48 puntos.

Se valorarán los aspectos funcionales y formales aportados por los aspirantes, teniendo en cuenta las premisas marcadas por la propiedad.
Así mismo, se valorarán las soluciones técnicas y constructivas propuestas que posibiliten la materialización de dicha idea. Todo ello según los siguientes criterios:

1.CRITERIO: DESCRIPCIÓN Y ANÁLISIS DE LA SOLUCIÓN ADOPTADA EN FUNCIÓN DE LOS CRITERIOS QUE AFECTAN AL USO DEL NUEVO EDIFICIO.

Puntuación: 8 puntos.

Se valorarán las soluciones que, incorporando las necesidades expuestas en el Pliego Técnico (al no ajustarse estas necesidades estrictamente al anteproyecto disponible) y los criterios definidos en el mismo, mejoren y definan el edificio de piscinas de competición y aprendizaje adaptado al entorno.

EIBARKO UDALA | AYUNTAMIENTO DE EIBAR

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de Verificación:
65cc018a9d15cd45b2a71e796e13e41d7c4e20c5
Erreferentzia-zenbakia /Nº Referencia: DS-202600004976
Baliozkotze-URLa / URL de validación: https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do

Sinadura / Firmado por	Data / En fecha
ANDER GURRUCHAGA ODRIOZOLA	02/10/2026 11:18:17

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)

2.IRIZPIDEA: ERAIKINAREN IRISGARRITASUNA ETA IBILBIDEAK ETA INGURUNEA. ERAIKINAREN ZIRKULAZIOA HOBETZEA BALORATUKO DA.	2.CRITERIO: ACCESIBILIDAD Y RECORRIDOS DEL PROPIO EDIFICIO Y CON EL ENTORNO. SE VALORARÁ LA MEJORA DE LAS CIRCULACIÓNES DEL EDIFICIO.
Puntuazioa: 13 puntu.	Puntuación: 13 puntos.
Plegu Teknikoko beharren programaren zehaztapenak kontuan izanda, erabiltzaileak eta ikusleak sartzea, ibilbideak hobetzea, estalkira eta gaur egungo kiroldegira sartzea erraztuko duten konponbideak txertatzea baloratuko da.	Se valorará la incorporación de soluciones que faciliten el acceso tanto de usuarios como de público, la mejora de recorridos, el acceso a cubierta y al polideportivo existente, teniendo en cuenta las especificaciones del programa de necesidades del Pliego Técnico.
3.IRIZPIDEA: ERAGINKORTASUN ENERGETIKOAREN IRIZPIDEAK GARATZEA, ERAIKINEAN TEKNOLOGIA AURRERATUAK EZARTZEA BALORATUKO DA.	3.CRITERIO: DESARROLLO DE CRITERIOS DE EFICIENCIA ENERGÉTICA, SE VALORARÁ LA IMPLEMENTACIÓN DE TECNOLOGÍAS AVANZADAS EN EL EDIFICIO.
Puntuazioa: 9 puntu.	Puntuación: 9 puntos.
Klimatizazio- eta hezetasuna kentzeko sistemetan eta eraikinean ura kudeatzeko eta iragazteko sistemetan eraginkortasun energetikoko sistemak sartzea baloratuko da. Erabili beharreko sistema eta lortutako abantailak edo aurrezkiak deskribatu beharko dira.	Se valorará la incorporación de sistemas de eficiencia energética en los sistemas de climatización y deshumidificación y en la gestión del agua y filtrado en el edificio. Será necesaria la descripción del sistema a emplear y las ventajas o ahorros obtenidos.
IRIZPIDEA: IGERILEKUETAKO URAK BERRERABILTZEKO IRIZPIDEAK GARATZEA, ERAIKINEAN BALIABIDE HORI APROBETXATZEKO SISTEMAK EZARTZEA BALORATUKO DA.	4.CRITERIO: DESARROLLO DE CRITERIOS DE REUTILIZACIÓN DE AGUAS DE PISCINAS, SE VALORARÁ LA IMPLEMENTACIÓN DE SISTEMAS DE APROVECHAMIENTO DE ESTE RECURSO EN EL EDIFICIO.
Puntuazioa: 8 puntu.	Puntuación: 8 puntos.
Igerilekuetan ura berrerabiltzeko sistemak sartzea baloratuko da, iragazkiak garbitzetik ura berreskuratuz (ultrafiltrazioa eta alderantzizko osmosia), hondar-beroa berreskuratuz edo	Se valorará la incorporación de sistemas de reutilización de agua de las piscinas mediante recuperación del agua del lavado de filtros (ultrafiltración y osmosis inversa) o recuperación

EIBARKO UDALA | AYUNTAMIENTO DE EIBAR

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de Verificación:
65cc018a9d15cd45b2a71e796e13e41d7c4e20c5
Erreferentzia-zenbakia /Nº Referencia: DS-202600004976
Baliozkotze-URLa / URL de validación: https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do

Sinadura / Firmado por	Data / En fecha
ANDER GURRUCHAGA ODRIOZOLA	02/10/2026 11:18:17

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)

kudeaketa adimenduneko sistemak erabiliz (atzera-eramatearen kontrola edo euri-uren bilketa). Erabili beharreko sistema eta lortutako abantailak deskribatu beharko dira.

de calor residual o bien sistemas de gestión inteligente (control de retrolavado o recogida de pluviales). Será necesaria la descripción del sistema a emplear y las ventajas obtenidas.

5. IRIZPIDEA: PROIEKTUAREN METODOLOGIA, IRISMENA ETA PROGRAMAZIOA.

Puntuazioa: 5 puntu.

Proiektuaren metodologia, zehaztapen teknikoak, diseinu-arauak eta proposatutako kalitateak, funtzionaltasuna, jarduerak eta proiektua idazteko programazioa baloratuko dira.

5.CRITERIO: METODOLOGÍA, ALCANCE Y PROGRAMACIÓN DEL PROYECTO.

Puntuación: 5 puntos.

Se valorará la metodología del proyecto, especificaciones técnicas, normas de diseño y calidades propuestas, funcionalidad, actividades incluidas y programación de la redacción del proyecto.

6. IRIZPIDEA: OBRAREN ZUZENDARITZAREN METODOLOGIA, IRISMENA ETA PROGRAMAZIOA.

Puntuazioa guztira: 5 puntu.

H

onako hauek baloratuko dira: eraikuntza-prozesuaren metodologia, hondakinen kudeaketa eta eraginkortasun energetikoa, plangintza eta bide kritikoko programazioa, eta prozesuaren kontrola obra-faseen arabera.

6.CRITERIO: METODOLOGÍA, ALCANCE Y PROGRAMACIÓN DE LA DIRECCIÓN DE OBRA.

Puntuación total: 5 puntos.

Se valorará la metodología del proceso constructivo, gestión de residuos y eficiencia energética y programación con planificación y camino crítico, control del proceso en función de las fases de obra.

Puntuak, irizpide bakoitzaren barruan, honela banatuko dira:

- Puntuazioaren % 100 bikaintzat jotzen den proposamenari, hau da, adjudikazio-irizpidearen alderdi garrantzizkoetan oso proposamen esanguratsuak dakartzanari.
- Puntuazioaren % 75 ontzat jotzen den proposamenari, hau da, adjudikazio-

Los puntos, dentro de cada uno de los criterios, se distribuirán de la siguiente manera:

- 100% de los puntos a la propuesta que se califique como excelente, entendiéndose como tal la que aporte propuestas muy significativas en aspectos relevantes del criterio de adjudicación
- 75 % de los puntos a la propuesta que se califique como buena, entendiéndose

EIBARKO UDALA | AYUNTAMIENTO DE EIBAR

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de Verificación:
65cc018a9d15cd45b2a71e796e13e41d7c4e20c5
Erreferentzia-zenbakia /Nº Referencia: DS-202600004976
Baliozkotze-URLa / URL de validación: https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do

Sinadura / Firmado por	Data / En fecha
ANDER GURRUCHAGA ODRIOZOLA	02/10/2026 11:18:17

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)

irizpidearen alderdi garrantzizkoetan kontuan hartzeko proposamenak dakartzanari.

- Puntuazioaren % 50 oinarrizkotzat jotzen den proposamenari, hau da, adjudikazio-irizpidearen alderdi garrantzizkoetan proposamen benetan esanguratsuak ez dakartzanari.

- Puntuazioaren % 25 txartzat jotzen den proposamenari, hau da, adjudikazio-irizpidearen alderdi garrantzizkoenak behar adina garatu ez dituenari.

- Puntuazioaren % 25 oso txartzat jotzen den proposamenari, hau da: adjudikazio-irizpidearen alderdi garrantzizkoenak garatu ez edo oso modu eskasean garatu dituenari.

como tal la que aporte propuestas apreciables en aspectos relevantes del criterio de adjudicación

- 50 % de los puntos a la propuesta que se califique como básica, entendiéndose como tal la que se considere suficiente pero sin que aporte propuestas significativamente apreciables en aspectos relevantes del criterio de adjudicación.
- 25 % de los puntos a la propuesta que se califique como deficiente, entendiéndose como tal la que se desarrolle de forma insuficiente aspectos relevantes del criterio de adjudicación.
- 0 puntos a la propuesta que se califique como muy deficiente entendiéndose como tal la que se considere que no desarrolla o lo hace de forma muy deficiente aspectos relevantes del criterio de adjudicación

Hautaketa-prozesuan aurrera jarraitzeko, balio-judizio bidez neurtu daitezkeen irizpideen puntuazio gutxienekoa honako hau da: 25 Puntuak

El umbral mínimo de puntuación en el conjunto de criterios evaluables mediante juicios de valor para continuar en el proceso selectivo es el siguiente: 25 puntos

B. MATEMATIKA FORMULEN BITARTEZ NEURTU DAITEZKEEN IRIZPIDEAK.

IRIZPIDEA: Prezioa.

Puntuazioa: 26 puntu

Balorazio-formula:

$$Bi = \frac{Ji}{Max\ (Ja, Jmax).} \times Bmax.$$

Hona:
Bmax: Prezioa kontuan hartuta emango den gehieneko puntuazioa edo puntuazio maximoa.

B. CRITERIOS EVALUABLES MEDIANTE FORMULAS MATEMATICAS

CRITERIO: Precio

Puntuación: 26 puntos

Fórmula de valoración:.

$$Vi = \frac{Bi}{Max\ (Bs,Bmax)} \times Vmax$$

Donde:
Vmax: Puntuación máxima a otorgar por el criterio precio.

EIBARKO UDALA | AYUNTAMIENTO DE EIBAR

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de Verificación:
65cc018a9d15cd45b2a71e796e13e41d7c4e20c5
Erreferentzia-zenbakia /Nº Referencia: DS-202600004976
Baliozkotze-URLa / URL de validación: https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do

Sinadura / Firmado por	Data / En fecha
ANDER GURRUCHAGA ODRIOZOLA	02/10/2026 11:18:17

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)

Ja: Jaitsiera adierazgarria, kontratu honetan % 20an zehaztua.
Bi: Eskaintza bakoitzari emandako puntuazioa edo balorazioa.
Jmax: Gehieneko jaitsiera lizitaziora aurkeztu direnetatik.
Ji: Eskaintza (i) bakoitzari dagokion jaitsiera.
Max (Ja, Jmax). Adierazitako balio bi horien artean, gehienekoa edo maximoa.
Neurriz kanpoko prezio-jaitsierak: BAI, jasota daude.

Bs: Baja significativa, que se determina en este contrato en el 20 %.
Vi: Puntuación o valoración otorgada a cada oferta.

Bmax: Baja máxima de entre las presentadas a la licitación.
Bi: Baja correspondiente a cada oferta (i).
Max (Bs, Bmax): Representa el valor máximo de entre los dos indicados.
Se consideran bajas temerarias: SI se contemplan

IRIZPIDEA: IDAZTEN DUEN LANTALDEAREN KALITATEA

Puntuazioa: 8 puntu

Balorazio-formula:

- 2 puntu IGERILEKUAK DITUZTEN ERAIKIN BERRIAK EGIN EDO KIROL-ESPAZIOAK BIRGAITZEKO azkenengo 10 urteetan Proiektua idatzi duen ARKITEKTOAK idatzitako proiektu bakoitzeko eta 5.000.000,00 €-ko aurrekontua izan duena. Gehienez ere 8 puntu.

CRITERIO: CALIDAD DEL EQUIPO REDACTOR

Puntuación: 8 puntos

Fórmula de valoración:

- 2 puntos por cada Proyecto de NUEVOS EDIFICIOS O REHABILITACIÓN DE ESPACIOS DEPORTIVOS CON PISCINAS redactado en los últimos 10 años por el ARQUITECTO/INGENIERO SUPERIOR de la redacción del proyecto y de presupuesto de 5.000.000,00 € de ejecución material, hasta un máximo de 8 puntos.

IRIZPIDEA: DIREKZIO-TALDEAREN KALITATEA

Puntuazioa: 12 puntu

Balorazio-formula:

- 2 puntu proposatutako taldeko GOI MAILAKO ARKITEKTO/INGENIARIAK azken 10 urteetan IGERILEKUAK DITUZTEN ERAIKIN BERRIAK EGITEN EDO KIROL ESPAZIOAK BIRGAITZEKO zuzendutako proiektuen exekuzio materialaren 5.000.000 aurrekontuko kopuru bakoitzeko, gehienez ere 6 puntu.

CRITERIO: CALIDAD DEL EQUIPO DIRECTOR

Puntuación: 12 puntos

Fórmula de valoración:

- 2 puntos por cada 5.000.000 de presupuesto de ejecución material de NUEVOS EDIFICIOS O REHABILITACIÓN DE ESPACIOS DEPORTIVOS CON PISCINAS dirigidos en los últimos 10 años por el ARQUITECTO/INGENIERO SUPERIOR del equipo propuesto, hasta un máximo de 6 puntos.

EIBARKO UDALA | AYUNTAMIENTO DE EIBAR

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de Verificación:
65cc018a9d15cd45b2a71e796e13e41d7c4e20c5
Erreferentzia-zenbakia /Nº Referencia: DS-202600004976
Baliozkotze-URLa / URL de validación: https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do

Sinadura / Firmado por	Data / En fecha
ANDER GURRUCHAGA ODRIOZOLA	02/10/2026 11:18:17

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)

-2 puntu proposatutako taldeko ERDI MAILAKO TEKNIKARIA azken 10 urteetan IGERILEKUAK DITUZTEN ERAIKIN BERRIAK EGITEN EDO KIROL ESPAZIOAK BIRGAITZEKO zuzendutako proiektuen exekuzio materialaren 5.000.000 aurrekontuko kopuru bakoitzeko, gehienez ere 6 puntu.

- 2 puntos por cada 5.000.000 de presupuesto de ejecución material de NUEVOS EDIFICIOS O REHABILITACIÓN DE ESPACIOS DEPORTIVOS CON PISCINAS en los últimos 10 años por el TECNICO DE GRADO MEDIO del equipo propuesto, hasta un máximo de 6 puntos.

IRIZPIDEA: INGURUMEN-KUDEAKETA HOBETUKO DUTEN PROPIETATEAK DITUZTEN MATERIALEN ERABILERA HOBETZEA.

Puntuazioa: 6 puntu

Balorazio-formula: 1,00 puntu hobekuntzaren % 5eko hobekuntza bakoitzagaitik, gehienez 6 puntu, hurrengoetan: Azpiprodukuak, bigarren mailako lehengaiak, material birziklatuak edo berrerabiltzeko prestaketa-prozesuetatik datozenak erabiltzea, pisuzko obra osoaren gainean, Ihobek "Euskal Ingurumen Administrazioaren Legea betetzeko Gidaliburua, 84.3 artikulua: Bigarren mailako materialak sartzea obren kontratazioan" izenekoan garatutako metodologiaren eta erantsitako kalkulu-tresnaren arabera.

OHARRA: Atal hau egiaztatzeko, enpresaren konpromiso-adierazpena eta neurriaren xehetasunak aurkeztu beharko dira.

CRITERIO: MEJORAR LA UTILIZACION DE MATERIALES QUE TENGAN PROPIEDADES QUE MEJOREN LA GESTION AMBIENTAL.

Puntuación: 6 puntos

Fórmula de valoración: 1,00 punto por la mejora de cada 5% de mejora, hasta máximo 6 puntos, en: Utilización de subproductos, materias primas secundarias, materiales reciclados o provenientes de procesos de preparación para la reutilización sobre el total de la obra en peso, según la metodología desarrollada por Ihobe en la “Guía para el cumplimiento de la ley de administración ambiental vasca artículo 84.3: Inclusión de materiales secundarios en contratación de obras o proyectos.

NOTA: Para verificar este apartado se deberá presentar una declaración de compromiso de la empresa y detalle de la medida.

Kontratua esleitzeko irizpideak aukeratzeari dagokionez, eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 145. artikuluarekin bat etorriz, kontratuaren bidez bete beharreko administraziobeharrei erantzuteko eskaintzen

En cuanto a la elección de los criterios para la adjudicación del contrato, y de conformidad con el artículo 145 de la Ley de Contratos del Sector Público, se ha establecido la pluralidad de criterios con los que se pretende conseguir la mejor relación

EIBARKO UDALA | AYUNTAMIENTO DE EIBAR

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de Verificación:
65cc018a9d15cd45b2a71e796e13e41d7c4e20c5
Erreferentzia-zenbakia /Nº Referencia: DS-202600004976
Baliozkotze-URLa / URL de validación: https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do

Sinadura / Firmado por	Data / En fecha
ANDER GURRUCHAGA ODRIOZOLA	02/10/2026 11:18:17

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)

kalitate-prezio erlaziorik onena lortzeko irizpideak ezarri dira.

Esleipen-irizpideak kontratuaren xedeari lotuta daude, eta modu objektiboan formulatu dira, berdintasun, bereizkeriarik eza, gardentasun eta proportzionaltasun printzipioei dagokienez, eta ez diote kontratazio-organoari mugarik gabeko erabaki-askatasunik ematen, eskaintzak benetako lehia-baldintzetan ebaluatzeko aukera bermatuz.

calidad-precio de las ofertas que dé cobertura a las necesidades administrativas a satisfacer a través del contrato.

Los criterios de adjudicación están vinculados al objeto del contrato y se han formulado de manera objetiva, con pleno respeto a los principios de igualdad, no discriminación, transparencia y proporcionalidad, sin que confieran al órgano de contratación una libertad de decisión ilimitada, garantizando la posibilidad de que las ofertas sean evaluadas en condiciones de competencia efectiva

BALIO-JUDIZIOEN bidez neurgarriak diren irizpideen gaineko dokumentazioa

IRIZPIDEA: MEMORIA

Irizpidea baloratzeko aurkeztu behar den dokumentazioa:

- Proposatutako jarduera deskribatzen duen memoria, beharren programan jasotako alderdiak justifikatuz.
- Proposatutako soluzioaren planoak edo infografia deskribatzailea.

Oharra: Irizpidea baloratzeko aurkeztu beharreko dokumentazioaren gehieneko luzerak ezin izango du magnitude hauetako bat ere gainditu:

a) Memoria, 20 orrialde, alde batean Arial 10 letrarekin idatzita (edo handiagoa) eta lerroarte bakuna (edo handiagoa).
b) Gehienez, 100.000 karaktere, zuriuneak kontatuta.
c) Proposatutako soluzioaren planoak edo infografia, 4 orrialde alde batean DIN A3.

Documentación relativa a criterios evaluables mediante JUICIO DE VALOR

CRITERIO: MEMORIA

Documentación a presentar para valorar el criterio:

- Una memoria descriptiva de la solución propuesta con justificación de los aspectos recogidos en el programa de necesidades.
- Planos o infografía descriptiva de la solución propuesta.

Nota: La extensión máxima que alcanzará la documentación a presentar para valorar el criterio no podrá sobrepasar ninguna de las siguientes magnitudes:

a) Memoria, la cantidad de 20 páginas, escritas a una cara con letra Arial 10 (o tamaño superior) e interlineado sencillo (o de tamaño superior).
b) 100.000 caracteres contados con espacios
c) Planos o infografía de la solución propuesta, la cantidad de 4 páginas a una

EIBARKO UDALA | AYUNTAMIENTO DE EIBAR

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de Verificación:
65cc018a9d15cd45b2a71e796e13e41d7c4e20c5
Erreferentzia-zenbakia /Nº Referencia: DS-202600004976
Baliozkotze-URLa / URL de validación: https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do

Sinadura / Firmado por	Data / En fecha
ANDER GURRUCHAGA ODRIOZOLA	02/10/2026 11:18:17

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)

cara en formato DIN A3.

Gehieneko orri-kopuru horretan sartuta dauden orri-oinak, eranskinak, eskemak, argazkiak, grafikoak eta sar daitekeen beste edozein dokumentu mota. Azala eta aurkibidea orri kopuru horretatik kanpo geratzen dira.

Esta extensión máxima incluye las notas a pie de página, anexos, esquemas, fotos, gráficos y cualquier otro tipo de documentación que eventualmente pudiera incorporarse. Se excluyen la portada y el índice.

0 punturekin baloratuko dira lehen adierazitako gehieneko luzera gainditzen duten proposamenak.

Se valorarán con 0 puntos las propuestas que sobrepasen la extensión máxima antes indicada

Ordainketa-araubidea.

1. Lehen ordainketa, % 50ekoa, behin betiko proiektua entregatzean.

2. Obra egin bitartean egin beharreko ordainketak, kontratuaren prezioaren % 85 arte.

3. Gauzatutako obren azken ziurtagiria ematean, % 15eko azken ordainketa.

Régimen de pagos.

1. Un primer pago del 50% a la entrega de proyecto definitivo.

2. Pagos a realizar durante la ejecución de la obra hasta un 85% del precio del contrato.

3. El pago final del 15% a la entrega de la certificación final de las obras ejecutadas.

Ander Gurruchaga Odriozola (Obra Ataleko zuzendaria)

Ander Gurruchaga Odriozola (Director del Área de Obras)

EIBARKO UDALA | AYUNTAMIENTO DE EIBAR

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de Verificación:
65cc018a9d15cd45b2a71e796e13e41d7c4e20c5
Erreferentzia-zenbakia /Nº Referencia: DS-202600004976
Baliozkotze-URLa / URL de validación: https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do

Sinadura / Firmado por	Data / En fecha
ANDER GURRUCHAGA ODRIOZOLA	02/10/2026 11:18:17